

EGAN ALDIZKARIA, 30 URTE EUSKAL LITERATURAGINTZAN

J. San Martín

Egan literatur aldizkaria 1948. urtean sortu zen Real Sociedad Vascongada-ko Boletinaren literaturazko eraskin bezala eta elebiduna bere izatez. Baina, gure historian inoiz gerta ez dena gertatu zen, zazpi urteren buruan euskara hutsezko aldizkari bihurtzea. Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegia sortu zuen Gipuzkoako Diputazioak eta bere babespean hartu zuen idazkuntzaren zuzendaritza. 1954. urtea zen eta ordutik, hara hemen, bere gora-behera guziekin, hogetahamar urteren buruan nola etorri den iraunaraziz. Horregatik, hau ere, beste gertakari bat da, zeren euskarazko aldizkari batek ere ez bai du inoiz iraun horrenbeste urteren buruan literatura gaiari loturik.

Gaur, Euskal Literaturaren historiarako arretaz begiratu beharra dugu gerraosteko ekintzen ekarrian. Ez bai da izan txantxetakoa bedonek markatu digun bidea eta bildu duen materiala: antzerki, olerki, ipui eta kontaera, saiakera, hitzaldi, kritika eta abar, gerraosteko idazleen belaunaldietatik lumarik ospetsuenak parte hartuz.

Duela hogetahamar urte, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País eta Seminario de Filología Vasca «Julio de

Urquijo» bi erakundeak jabetzean hiru pertsonaren esku utzi zen bere zuzendaritza: A. Arrue, A. Irigaray eta L. Mitxelena, eta «Asmo berri» zeritzan atariko batekin adierazi zuten beren helburua zer zen (ikus *Egan*, 1954. urteko 2-4 zenbakian). Egitura berezia eman zitzaion gaiak sailkatuz eta bakoitzari ardurak banatuz.

Gure egunotan, hiru zuzendari haietatik bat bakarrik bi-zi dugu eta sailketa hartatik aurkitzen ditugun hutsunerik nabarmenenak Jan-edanak, Naasmaas eta beste kritika era berezi batzuen aurkitzen dugu, hara nola Mitxelena hain lanpetua ibiltzeagatik literatura eta zinema kritika zehatz eta jakitunak adibidez. Baina, urteak aurrera, gazte berriak ere badatoz egungo kezkak ekarriz haize berriekin gure hizkuntza zaharraren literaturgintza freskatzera.

Egungo egitura honela doa: lehen orrietan pertsonaien oroitzapenak eta horien agiriak, saiaerak edo zenbait estudio mota literaturarekin zer ikusia dutenak; bigarren saila olerkiena; hirugarrena «Kontu-kontari» ipui, kondaira edo narrazio laburrak; laugarrena «Adabakiak» argibidez edo kritika laburrez; bosgarrena «Liburuak», euskaraz argitaratzen diren zenbait libururen edukina adiaraziz edo aburuak agertuz; eta, seigarrena, antzerkiaren saila, zenbaki bakoitzean antzerkiren bat argitaratuz.

Sorreratik, aldizkariaren asmoa urtean sei ale ateratzekoa izan zen, baina azkenaldian urteko ale bakarra argitaratu da eta inoiz bi urteko alea ere bai. Horiek ale sendo xamarrak izan badira ere, ez dugu nahi jokabide hortatik jarraitzerik, zeren aldizkari batek bere idazle laguntzaileen artean eta irakurlegoan beharrezko dinamika bati eusteko maiztasuna nahi ta nahiezkoa du. Horregatik, aurtendik urtean hiru ale atera nahi ditugu, baldin Diputazioak hortarako laguntza ematen jarraitzen badigu. Geroan gerokoak esango du.

Egan-ek izan duen alde ona, literatura gaiak soil-soilik erabiltzearena izan da, tartean bestelako ekintzak nahastu gabe, horregatik, ezta euskararen aldeko proselitismorik ere ez du egin; euskarazko literaturagintza eta kitto. Ekintzan,

2

euskararen erabilera erakutsi du. Kritikak ere maiz erabili dira bertan, baina horiek ere literaturari buruzkoak eta ez inoiz pentsaera filosofikoen kontzeptuetan. Eta, aurrerantzean ere hortik jarraitu nahi du.

Euskal idazleok badakigu elebidun errealitatea erakusten digun gizarte batean bizi garela, baina oso argi eduki behar duguna da besteekingo harremanetarako erdera erabili ahal badugu ere, gure pentsamenezko gogoetak euskara beharrezkoa dugula. Hau da, gogoetazko ideak erabiltzeko gure hizkuntza behar dugula, gizonarentzat hizkuntza denez pentsamen eta gogoetan sorkunde iturrien tresna. Eta, gure herriak hizkuntza baldin badu bere nortasunik nabarmenena, hizkuntzaren kultur edukina literatura da.

Bukatzeko, esan dezadan, denborarekin gizonak joan eta gizonak etorri bizitzak berekin dakarren legea dela. *Egan*-i bultzada handia eman zioten hiru gizonetatik gazteena eta aldizkarian lanik gehien egin duena dugula oraindik bere buru, berak hartu nau zuzendaritzan lankide. Baina, nere indarrok bereak baino ahulagoak direnez, oraindik sortu berria den Euskal Idazleen Elkarteari egin diogu pare bat langutzaileren eskaria eta hara hor Arantxa Urretavizcaya eta Anjel Lertxundi idazkuntzarako lagun sartuak, mamiz ez ezik behar bada azalez ere berrikuntzeri sarrera emateko.

tado de Sintaxis del idioma Euskaro (1912); *El verbo vascongado* (1923); *Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma* (1935); *Desarrollo de las conjugaciones Euskaras Perifrásticas y Sintéticas, respetuosas y familiares* (1943). Horiez gainera euskaraz argitaratu zuen telefonoaren historiiaz eta teknikazko liburu bat: *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929) zeritzana.

Bai euskaraz eta bai gazteleraz, euskal gaiei buruz beste honako aldizkarietan kolaboratu zuen: *Euskal Esnalea*, *Euskera* eta *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-en*.

Gerraondoan euskara eta euskal kultura suspertze lane-
gatik asko zor diogu I. M. Etxaide zenari. Besteak beste,
Urkixo Filologi Mintegia sortzez eta bedonen babespean *Egan*
hartuaz euskara hutsean biziartzeko laguntzaz. Euskaltzain-
diaren *Euskera* agerkaria bigarren aldiari lanean hasteko ere
bera buru zela lortu zuen Nazario Oleaga idazkari zenaren
laguntzaz. Bide idekitze harek ibilia ekarri zuen eta *Egan*-
goek ondo dakigu ibiliaz burutzen direla kultur ekintzak.
Horregatik ohoretu nahi dugu Ignacio Maria Etxaide zena-
ren izena bere jaiotzaren mendeurrenez.